

EZINEZKO MAITASUNA

Ordubiak oraindik ez ziren izango, gure etxe zaharreko txirrinak jo zuenean. Zortzi urtetako anai gazteak erantzun zuen. Irripartsu, begiak niregantz zuzendu zituen eta bere ahots leunarekin neretzat zela ziurtatu zuen. Amak begirada gogorra bota eta arrunta zen bezela, bai aitak eta bi anai-arrebak ez erantzuteko agindua eman zuela ulertu genuen.

Aitorrek interfonoa zintzilikatu eta sukaldetik aldegin zuen nerekin batera. Horrelakoetan, garrasika hasten dira bata bestearen aurka. Amak, bihotza burnia bezain gogorra dauka, bera da jaun eta jabe, berak eramaten ditu etxeko kontuak, bidaiaren bat egin behar bada, berak antolatzen du... Aitak berriz, bihotza, ogi bustia baino biguinago dauka. Biek, Aitor eta niretzat, hoberena nahi dute, baina era desberdinean. Ama, gogor saiatzen da, eta gu lanbide munduan ahal den goren iristea nahi luke. Aitak ere gauza bera nahi du, nahiz eta senar-emazte on bat eta lanpostu egoki bat edukitzearekin nahikoa daukagula dio. Eguerdia hura, ez zen besteen desberdina izan, bukaeran, amak irabazten zuen beti.

Arratsaldean, kalera jeisterakoan, Mikel nuen zai. Mikel, hamahiru urtetako mutila da, bere bihotz eta arimak erakusten duen bezala, edozeini laguntzeko prest dago beti. Hiru hilabete daramazkigu ateratzen. Nere aitak badaki, bainan amari ez ziola esango zin egin zidan.

Begiak itxi, eta nire etorkizuna ikusten dut. Nere ama eta aita sukaldeko aulkietan eserita, nik Mikelen eskuari indarki heltzen eta nere amak, edozeini lau hortz ateratzeko prest dagoela ikusten dut.

Aita eta ni, amaren gaitasunaren aurrean. Aurrez aurrez. Une hartan, erakusten zen, etxean nork jantzitzen zituen prakak.

Txirrindak garajetik atera, eta ibilbidean zehar, bukaezinerantz hasi genuen gure abentura. Gure barruan agerturiko pentsamenduak, han urrutian ageri zen lerroa baino urrunago zihoazen. Inorren beharrik ez daukagun lurraldean, inor kezkatu edo arduratzen ez dugun eskualdean, gu, geure buruen jabe.

Baina gure amets hura, errepidearen bukaeran amaitzen zen, adreiluzko etxeen oinetan. Jendea presaka eta humore txarrez doan hirian. Ohe bakoitzaren alboan, iratzargailuak, goizero, txirrina jotzen du, herritarrek, egunero eginkizun berdinak egin ditzaten. Errukirik gabe, beraien birikak, lantegietako zikin, zabor eta keekin ondatzen dituzten bitartean. Gure herrixkan, eguzkiarekin batera esnatzen geran bitartean, gure lur hezeetako lurrak lantzen ditugun bitartean, gure gorputzak, aire garbiz betetzen ditugu, hirian hartutako kutsaduretaz garbiturik.

Hala ere ordea, hormaz beteriko zulo hartan geneukan guk behar genuen giroa. Gure adineko gazteen artean egoteak, helduen loturak askatzen zituen, gure arimak aske utziaz. Baina zoriontasun hark, ez zuen arratsaldea besterik irauten.

Txirrindak berriro hartuz, gure etxe eta baserrietarantz abiatzen ginen. Baina hemen ez zen ludia bukatzen, bien maitasuna... elkartuaz, aurrera ateratzen ginen, besteen aholku eta mehatsuak alde batera utziaz.

Eguneroko ibilbide hau egin genuen urteetan zehar, gure bizimodua erabat aldatu zen ordua arte. Garai hartan, gure gogoetak, gure etorkizunean zeuden finkaturik. Guk eraikitako geroa. Geroaldi zital eta desegokia. Gure gazte denboran, buruan geneukan etorkizunaren aurkakoa. Bataren bihotza, bestearen sentikizunaren asago.

Hemezortzi urte genituelarik, lanaren bide-siur desberdinetatik abiatu ginen; egunero ikusten genituen aurpegiak gure begietatik aldenduaz, senide eta adiskideak utziaz.

Herrialde desberdinetara zuzendu genituen gure urratsak. Une hartan banatu genituen gure sentimenduak, baina hala ere, elkarri idazten genituen gutunak, nire eskuetara heltzen zirenean, gogorki, nire bularraren aurka estutzen nituen, bihotzaren taupadek, nire maitasuna ager zezaten.

Hala ere, ez nion neure buruari inoiz barkatuko, nire bizitza eta Mikelena, horrela bukatu zitezen, bata bestearen urrun. Bakarrik nagoenean, nigar mutuak entzuten ditut nere barruan, egindako akatsa behin eta berriz gogoraraziz. Urteen joan eta etorriak, inoiz isildu ez duen kantua.

Baina bihotzetan, betirako egongo da, inork beteko ez duen hutsunea, eta elkartuko geran egunaren zai geratuko gera, egun tupustaren zain.

LOREA INTXAURRAUNDIETA

